Datuen arabera, urtebetean etorkinen kopurua %17 igo da, 91 pertsona, horietatik heren bat pakistandarrak (denak gizonak) eta beste heren bat boliviarrak (denak emakumeak) izan dira. Une honetan, bata zein bestea, Bergarako bi komunitate inportanteenak bihurtu direla azpimarratu behar da.

Populazioaren adina eta sexuari erreparatu gero, berriz, etorkinen gehiengo haurrak ekartzeko adinean dagoela antzematen da, 235 pertsona daude 20-40 adin tartean, hau da, etorkin kopuru osoaren %43. Hori dela eta, epe motzean, etorkinen kolektiboaren jaiotza tasak gora egin dezake. Hala ere, populazio honetako gizonen eta emakumeen arteko orekarik ez dagoenez, eta gainera poloa daudenez

(pakistandarrak gizonetzkoen %33 dira eta Boliviari emakumezkoak emakume guztien %20), agian familiak osatzeko arazoren bat egon daitekeela aurrekusi daiteke. Bestalde, azken urte honetako etorkineren joera, nagusiki, Asia eta Hegoamerikakoa izan dela nabarmendu behar da. Bergaran Afrikako etorkinak gutxiengo bihurtu direlarik.

Kezkatzeko datu bat ere aipatu beharra dago: etorkinen kontzentrazioa ematen ari dela herriko gune jakin batzuetan, gune horiek ghetto bihurtzeko arriskuarekin.

Herriaren ikuspuntua osatzeko helburuarekin, Gizarte Zerbitzuetako dirulaguntzak jasotzen dituzten artean, une honetan, %16 inguru etorkinak direla esan behar da. Momentuz, lana aurkitzeko dituzten zailtasunak kontutan hartuta, datu honek ez dirudi oso kezagarria, hala ere, etorkizunean kontuan izateko faktorea izango da.



'Aupa Etxebeste!' filma 2.265 lagunek ikusi dute herrian

Sekulako arrakasta lortu du Aupa Etxebeste! filmak. Azaro hasieran frontoian eman zuen filma Udalak, eta guztira 2.265 lagunek ikusi zuten. Emanaldian, zuzendariak eta aktoreak izan ziren. Asier Altuna eta Telmo Esnalek zuzendutako filmak 50.000 ikusletik gora lortu ditu, hauetariko 5.365 ikuslek filma ibarrean ikusi dutelarik.



Toribio Jauregiren argazki erakusketa Aroztegi Aretoan

Toribio Jauregiren argazki erakusketa dago Aroztegi aretoan, abenduaren 3ra arte. Pilotazale eta argazkizale amorratua, Toribio Jauregi Altzeta (1896-1969) bere garaiko nolabaiteko kronista izan zen. Barrenkaleko 19. zenbakian denda zeukan (aurretik Eustakio Agirreolea argazkilariarena izandakoa) eta argazki fondo bikaina utzi zuen.

Argazkiak, DVDa eta liburua

Erakusketan, "Toribio Jauregi: pilotazale bat kameraren atzean" izenburupean, 30 argazki jarriko dituzte ikusgai. Era berean, Gallastegi eta Atano III.ak 1948an jokatu zuten finaleko irudiak jarriko dituzte DVD batean eta erakusketaren gaineko liburua salgai jarriko dute.

Azaroaren 16an, pilotaren gaineko mahai inguru izando da Aroztegi aretoan bertan.

Ordutegia

astehenetik egubakoitzera: 18:00 - 21:00

zapatutan: 12:00 - 14:00



2.428 kontsulta jaso ditu turismo bulegoak

Turismo bulegoak udan, hau da, ekaina, uztaila eta abuztuan, 2.428 kontsulta jaso ditu, iaz baino 246 kontsulta gehiago. Abuztuan jaso da kontsulta kopuru handiena, 1.293 hain zuzen ere. 2.428 kontsultetatik, 443 Bergarako jendeak egin ditu. 482 Euskadikoek eta 1.199 Estatukoek. Hauetatik gehienak Katalanek (518 kontsulta) egin dituzte. Aipatzekoa da Madrildarrek 204 kontsulta egin dituztela eta Valentziarren kontsulta kopurua asko igo dela (101 kontsulta). Europako herrialdeetatik 251 kontsulta jaso dira, gehienak Frantsesek eginak (129). Ingelesak 27, Italiarrek 23 eta Holandarrek 21 kontsulta egin dituzte. Amerikerrek 43 kontsulta egin dituzte turismo bulegoan, batez ere Argentino eta Estatu Batuarrek. Asiakoek 3 eta Ozeaniakoek 7 kontsulta egin dituzte. Aipatzekoa da Zelanda Berritik 6 lagun etorri direla.

Jaso diren kontsulten artean, asko izan dira gure herrian non jan eta non lo egin galdezka izan direnak. Hortaz gain, asko izan dira ere horren ezagunak diren tostoi eta erreilenoak non esku- ra ditzazketen galdetu dutenak. Turismo bulegoak, zabalik dauden herriko ostatu, jatetxe, taberna eta gozotegien inguruko informazioa eskaintzen du.

Gidatutako bisitei dagokienez, 47 egin dira, eta bertan, 355 lagunek hartu dute parte.



Turismo bulegoa abenduaren 2tik 11ra zabalik izango da.



El Ayuntamiento adquiere un cuadro de Abdón Juaristi

En el Palacio Aroztegi durante los meses de mayo y junio tuvo lugar una exposición con las obras del artista bergarés Abdón Juaristi. Después del éxito obtenido con la exposición, el Ayuntamiento ha decidido adquirir un cuadro del pintor.

La obra se llama "Tierras", y fue la obra escogida para ilustrar el cartel y el catálogo de la exposición. La obra está situada en el Ayuntamiento para el disfrute de todos los bergareses.

Agorrosingo igerilekuetatik Agorrosingo kiroldegira

Kirola egiteko moduak aldatzen hasi dira; lehen, kirolari adibidea lehian eta entrenamenduan zebilen gaztearena bazen, egun, kirola praktikatzeko modu eta arrazoiak ugaldtu egin dira. Garai berriei egokitzeko asmoz, kirol eta hezkuntza ikuspegiari, jolas-errekreatibo, sozial eta terapeutiko ikuspegiak uztartu zaizkio Agorrosingo igerilekuari.



Igerilekuetako eremuak:

Igerilekuak kalitate oso handiko igeriontzia dira, Euskadin dauden berri eta berriztatzaileenetariokoak. Bi ontziak mugikortasun urriko pertsonentzako egokituak egongo dira.

■ Igerileku handia: 25 m luze eta 21 m zabal. Tolosakoarekin batera Gipuzkoako 10 kaledun igerileku bakarra izango da. Gehienezko sakonera 1,60 eta gutxienezkoa 1,20 m. Temperatura 26 C°. Erabilerak: igeriketa librea, igeriketa lehiaketa federatuak, irakaskuntza maila guztietan, igeriketa terapeutikoa eta ur jolas ekintzak (puzgarriak, ur-jolas parkeak).

■ Igerileku txikia: 19 luze eta 5 m zabal. Sakonera maximoa: 1,20 m. Bere ura 30°-tara egongo da. Erabilerak: Akuaerobik eta ur gimnasiak, jaioberri eta ume txikiendako igeriketa, igeriketa terapeutikoa eta erabilera librea.

■ Igerilekuko aldagelak: aldagela ugari prestatu dira. Sexu bakoitzerako aldagela bi ipini dira. Bata, bakarkako kabinekin eta bestea, erabilera kolektibokoa (Eskolak, ikastaroak eta klubak). Hauetaz gain, gurasoentzako berariazko aldagelak ezarri dira, zeintzuetan jaioberrientzako taulak egokitu diren. Aldagela hauekin batera, ezinduentzako aldagela bereziak ere ezarri dira.

■ Sorosle, begirale eta botikin gela. Osasun araudia-ren premietatik harago jo da zerbitzu osoago bat eskaintzeko asmoz.

Gimnasia eremua:

Hiru gimnasio areto izango dira. Bata, 180 m²koa gorputz adierazpeneko jardueretarako: aerobik, gym-jazz, step, body-bump eta horrelakoak. Beste bi gimnasioek 150m² dituzte. Areto hauetan, spinning txirindak eta fitness eremuak ezarriko dira.

Pilates eta Yoga egiteko, goiko solairuan eraikiko den 110 m²ko areto bat egongo da. Areto hau gimnasia lasaiantzeko, umeentzako psikomotritate gela eta bestelako formazio ikastaroak emateko izango da.

Gimnasio eremutan, 6 aldagela egongo dira. Aldageletan, banakako kabinak eta taldekako eremuak egongo dira, dutxak bezalaxe.

Bestelako zerbitzuak:

Beharrezkoak diren ikus-entzunezko baliabidez hornituta egongo den 130 m²ko areto handia izango da. Bertan, mintegiak, topaketak, bideoak, diaporamak eta bestelako jarduerak egiteko aukera zabala egongo da.

Parean, bilerak gela handi bat egongo da bai klubetarako baita kiroldegiko kudeatzaileentzako. Jarraian, klubentzako gela. Bertan, beren idazkaritza zein entrenamendu prestaketak egiteko fax, ordenadore eta telefonoak egongo dira. Azkenik, zuzendaritza eta administrazio gelak egongo dira. Bestalde, taberna/jatetxea ere egongo da.

Bestelako zabaltzeak: kiroldegia ireki arren, hainbat interbentzio egin nahi dira, oraindik azterketa fasean daudenak:

- o Fitnesseko behin betiko aretoa.
- o Hiri balnearioa eta SPA eremua.
- o Kanpo igerilekua.

Epeak

- 2006ko negua eta uda kanpaina (irailaren 15erarte) egungo instalazioak erabiliko dira.
- Kiroldegi berriaren inaugurazio eguna 2006ko irailak 16-17 izango da ate irekietako asteburuarekin.

Udalak "kale hezitzaileen" programa jarri du abian

Udaleko Ongizate Zerbitzuak 11-17 urte bitarteko nerabeei zuzendutako Kaleko hezitzaileak programa jarri du abian. Debagoienean esperientzia aitzindaria da Bergaran martxan jarritakoa. Familia edo eskola nekez heltzen diren esparrutara heltzea da programaren helburuetako bat.

Bi hezitzaile lanean

Donostiako Kaleketa elkarte arduratuko da programa aurrera eramateaz. Gorka Manjon eta Nerea Orena ari dira 11-17 urte bitarteko nerabeekin lanean. Gizarte Hezitzaile tituludunak dira biak eta aste barruan izango dira Bergaran. Batez ere arratsalde partean arituko dira gazteekin. Zenbait asteburutan ere etorriko dira eurekin elkartera.

Kalea heziketa leku bilakatu nahi dute, gazte eta nerabeen arazoak entzun eta jasoz. Gatazka eta zailtasun konkretuei konponbide emateko bitartekari lanak egingo dituzte. Hain zuzen ere, nerabeekiko lanean eskumena duten beste erakunde, entitate eta instituzioekin lankidetzatza da helburuetako bat. Kaleko hezitzaileak programa, momentuz, datozen hiru urteotan eramango dute aurrera Bergaran.



(DEBAGOIENEKOAK)

El Ayuntamiento ha firmado el acuerdo para dar utilidad a las viviendas vacías

Javier Madrazo, Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco y Victoriano Gallastegi, alcalde de Bergara han firmado el convenio del Programa Bizigune. Mediante este convenio, el Ayuntamiento pretende dar utilidad a las viviendas vacías del municipio.

El objetivo del Programa Bizigune es paliar el problema de la vivienda intermediando entre los propietarios de viviendas vacías y quienes buscan una vivienda de alquiler y no la encuentran. Además, el programa garantiza a los dueños de las casas beneficios fiscales.

Los datos facilitados por el consejero señalan que de los 419 bergareses inscritos en Etxebide para la obtención de una vivienda, 104 estarían dispuestos a residir en una de alquiler a través de este programa. Los estudios del Gobierno Vasco señalan la existencia en la villa de 750 viviendas vacías.

Los primeros pasos de Bizigune en Bergara han logrado poner en el mercado seis viviendas. Una ya arrendada, dos con contratos firmados con los propietarios, y tres en fase de admisión.

El Programa Bizigune ofrece a los propietarios una renta mensual de hasta 660 euros. Todo aquel que posea una vivienda de menos de 120 metros, desocupada desde hace un año y en condiciones de habitabilidad, puede contratar su arrendamiento a Visesa por

un periodo mínimo de 5 años. Al cabo de ese tiempo, el propietario recuperará la vivienda en las mismas condiciones en que la arrendó. Y si previamente a su arrendamiento fuera precisa alguna reforma en la casa, Visesa se encargaría de supervisar, dirigir y subvencionar la obra hasta con un máximo de 18.000 euros y sin interés. Este préstamo se devolvería descontando un importe de la renta mensual que cobraría el propietario.



Las ventajas para el arrendatario son un precio razonable que nunca supera el 30% de sus ingresos familiares con un alquiler medio de 235 euros. La diferencia entre los 560 euros de media que reciben los propietarios y lo que paga el inquilino se financia por el Gobierno Vasco, que apuntó Madrazo, "se ahorra dinero porque es más barato financiar el alquiler que realizar una vivienda

nueva. Además movilizamos el parque de pisos desocupados, no se construyen viviendas innecesarias y se aporta a la sostenibilidad del suelo".

La gestión diaria del programa Bizigune en la villa se llevará a cabo por Suradesa, que todos los miércoles atiende en el Ayuntamiento de 10.00 a 12.00 horas, y el resto de la semana en las oficinas centrales de Arrasate. Se podrán dirigir los propietarios e interesados en buscar piso.

Kirol politikari buruzko Debagoieneko X. Topaketa

Elgetako Espaloia Kafe Antzokian egingo da topaketa. Osteguna, azaroak 24, goizeko 09:00etan emango zaio hasiera ekitaldiari.

Egitaraua

- 9:00 - 9:15 Harrera eta dokumentazioaren banaketa.
- 9:15 - 9:45 Aurkezpena eta topaketen hasiera
Patxi Basauri (Elgetako alkatea).
Iñaki Ugarteburu (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol Zuzendaria Nagusia).
Ignacio Lakunza (Debagoieneko Mankomunitateko Lehendakaria).
Margarita Viciola (Osasun Publikoko Zuzendaria).
- 9:45 - 10:15 Osasuna Euskadin; bilakaera, arazoak, joerak...
Jarduera fisikoarekin duen harremana. (Yolanda Pérez Díez - Osasun ikerketa eta estatistikaren arduraduna).
- 10:15 - 10:45 Osasunaren eta jardueraren fisikoaren alorreko jarduketak, individualak zein biztanleria osorakoak. Kino Quebec-en esperientzia (Sylvie Schiettekatte).
- 10:45 - 11:15 Kaferako atsedendaldia.
- 11:15 - 11:45 Enpresan osasuna bultzatzeko programak (Edurne Jiménez, Athlon S.Coop.).

- 11:45 - 12:15 Ariketa fisikoaren eta elikaduraren bitartez osasuna sustatu eta patologia kronikoetan esku hartzeko programak. Vitoria-Gasteizko ereduak (Juan Luis Zunzunegui).
- 12:15 - 12:45 Osasuna eta integratioko kirola: esperientziak eta proiektuak. Antolaketarako ereduak.
- 12:45 - 13:45 Mahaingurua: Euskadin baliagarri diren lankidetzarako eremuak eta ereduak. Aurreko hizlari guztiak eta Iñaki Iturrioz.
- 14:00 Bazkaria (Espaloia jatetxean).

Izen ematea:

Tel. 639 214 068, Fax. 943 779 163
kirola@debagoiena.com
Azken eguna: 2005eko azaroaren 21a
Prezioa: 30 euro (bazkaria barne)
Ordainketa (kontu zenbakian):
2101 0055 65 0010596765



Acuerdos más importantes adoptados por el Pleno

Maiatzaren 30eko bilkura

- Etxeko laguntza zerbitzuaren araudi erregulatuaren aldaketari hasierako onarpena ematea eta jende aurrean jartzea.
- Ondorengo obrak egiteko proposamen teknikoak eta baldintzen pleguak onartzea:
 - San Martin ikastetxeko teilatua konpontzeko 29.032,16 euroko lizitazio oinarriarekin.
 - Sanchez Toca kaleko ezponda eusteko lanak egiteko 35.560,96 euroko lizitazio oinarriarekin.
 - San Prudentzioko plazatxoan argiteria publikoa eta edateko ur sarea berritzeko 22.558,52 euroko lizitazio oinarriarekin.
- Ondorengo proiektuak idazteko baldintzen pleguak onartzea:
 - Ariznoa plazaren aurreko eremua urbanizatzeko proiektu teknikoak idazteko 29.000,00 euroko lizitazio oinarriarekin.
 - San Pedro kaleko urbanizazio lanen proiektu teknikoak idazteko, 25.700,00 euroko lizitazio oinarriarekin.
- Artekale eta Arruriaga kaleetako fatxadetatik argiteriaren instalazioa kentzeko lanak 2.263,09 eurotan "EDS Ingenieria y Montajes S.A." enpresari adjudikatzea.

Pleno del 13 de julio

- Adjudicación de los trabajos de instalación de conducto de agua al caserío Askatzu-Txiki del barrio San Marcial en 8.338,97 euros.
- Adjudicación de los trabajos para la renovación del lavadero de Azkoneta del barrio Angiozar en 10.746,23 euros.
- Aprobación de la factura correspondiente a la reparación del conducto de aguas pluviales en el barrio San Blas, que asciende a 5.292,72 euros.
- Aprobación de la propuesta técnica y el pliego de condiciones para instalar una barandilla de fundición en el barrio San Lorenzo, junto a la orilla del río Deba, en 41.159,92 euros.
- Nombramiento del representante del Ayuntamiento en la Junta General de la sociedad Jakion S.L.
- Aprobación de la cesión de 13,43 m2 realizada por "Jaia Taldea, S.L." en Mugertza 14.
- Concesión de autorización para ceder a las respectivas comunidades de copropietarios los porches de las plantas bajas de Artzamendi 7, 9 y 11 para uso de trastero o de local de la comunidad.
- Aprobación del convenio a firmar con Musika Eskola. En virtud del mismo, Musika Eskola recibiría una subvención para el curso de 2004/2005 equivalente al 25% del presupuesto presentado y 98.085 euros como máximo.
- Adjudicación de los trabajos de digitalización y vaciado de las actas de la Comisión de Gobierno y de la Comisión Permanente, en 5.898,61 euros.
- Adjudicación de los trabajos para instalar la nueva tubería por las fachadas en las calles Artekalea y Arruriaga a la empresa que está llevando a cabo los trabajos de reurbanización, en 14.372,72 euros.

Ekainaren 27ko bilkura

- Pol-Polen edateko ura jartzeagatik aurkeztutako 6.852,12 euroko faktura onartzea.
- Hilda dagoen Abdon Juaristi artista bergararraren koadro bat 5.500 eurotan erostea.
- 2005eko aurrekontua onartzea.
- Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari Urteagan 22 etxebizitza sozial eraikitzeko 556,50 m2ko lurzatia zeditzea.
- Zubiaurre 11, 13 eta 15ean eraikitako eraikinaren aurrean Udalarri jabari publikorako 74,42 m2ko lurzatia zeditzeko egindako eskaintza onartzea.
- Sahararen inguruan EAJ-EAk aurkeztutako mozioa onartzea.
- San Martin Agirre ikastetxean kalefazioa berritzeko lanak 67.805,75 eurotan adjudikatzea.

Pleno del 11 de julio

- Permuta de una parcela del caserío Artzamendi por otra sita en Urteaga propiedad del Ayuntamiento de Bergara.

Uztailaren 14ko bilkura

- Artzain Mundua Fundazioko Estatutuak onartzea eta kide sortzaile gisa 2000 euroko ekarpena egitea.
- Drogen Inguruko Gaietako Prebentziorako III Toki-Egitasmoa (2005etik 2009ra artekoa) onartzea.
- Aribar poligonoko Jabe Komunitateak jabari publikorako egindako zesia onartzea.
- 2004ko Kontu Orokorra onartzea.
- Zubiaurre 2, 1. eskubiko etxebizitza erostea, inguru horretan zubi bat eraiki ahal izateko.

Pleno del 26 de julio

- Aprobación de las bases del convenio urbanístico para el desarrollo del ámbito residencial del barrio San Lorenzo y del Área 43.
- Aprobación de la factura correspondiente al último certificado de obra de la fase 2-B de los trabajos de urbanización de la calle Katabia y de la liquidación de dichas obras. El costo total ha ascendido a 119.720,78 euros.
- Aprobación de varias donaciones realizadas para las colecciones de Geología y Zoología del Real Seminario.

2005eko irailaren 12ko bilkura

- Zubiaurre 2ko 2. eta 3. etxebizitzak erostea 264.445,32 eurotan.
- Goenkalea eta Kantoiak urbanizatzeko proiektu teknikoak eta baldintzen plegua onartzea. Lizitazio oinarria 453.115,99 eurokoa da.
- Hirigune historikoko eraikin aipagarrietan eta kaleetan argiteria publiko berria jartzeko baldintzen plegua onartzea. Lizitazio oinarria 450.609,22 eurokoa da.
- 2005/2006 ikasturtean herriko ikastetxeei dirulaguntza emateko hitzarmenak onartzea.

2005eko urriaren 10ean egindako bilkura

- Matxiategi 3tik 7ra bitartean oztopo arkitektonikoak kentzeko lanen proposamen teknikoak eta baldintzen plegua onartzea. Lizitazio oinarria 29.167,04 eurokoa da.
- Ibarra kaleko asfaltatze lanak 14.530,75 eurotan adjudikatzea.
- Zubiaurre 2-1.a eta baratza erostea 189.318,81 eurotan.

Pleno del 24 de octubre de 2005

- Compra de dos parcelas en Basalgo por 12.000 euros.
- Aprobar las ordenanzas fiscales para el 2006.
- Tomar parte en la ampliación de capital efectuada por "Bergarako Bihargitza 98, S.A." para la ejecución de las obras de las piscinas (fase II) y suscribir la totalidad de las nuevas acciones.
- Permutar terreno con "Madura Etxegintza S.L." en la unidad de ejecución 16-2 del planeamiento (zona de Urteaga).
- Aprobar los convenios a firmar con el EVE para la instalación de paneles fotovoltaicos en la escuela San Martín de Agirre y en el polideportivo, así como para el suministro de energía térmica al polideportivo y a la residencia Mizpirualde.
- Adherirse al manifiesto remitido por Emakunde con motivo de la celebración el 25 de noviembre del día internacional contra la violencia sobre las mujeres.

2005eko azaroaren 7ko bilkura

- Errege Seminarioko 4.822 m2ko patioa 741.000 eurotan erostea.

[AUZOETATIK]

Udal zerbitzuen
telefono eta faxak

Ayuntamiento:

San Martin de Agirre plaza, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Telf.: 943 77 91 00
Fax: 943 77 91 63
E-mail: bergara@bergara.net

| | |
|---------------------------------------|--|
| ALKATEZTA | tel: 943 77 91 01 fax: 943 77 91 63 |
| ARTXIBOA | tel: 943 77 91 32 fax: 943 77 91 63 |
| LIBURUTEGIA- KULTURA ETXEA | tel: 943 77 91 62 fax: 943 77 91 69 |
| ANGIOZARKO LIBURUTEGIA | tel: 943 76 16 19 |
| OSINTXUKO LIBURUTEGIA | tel: 943 76 23 76 |
| GIZARTE ONGIZATEA | tel: 943 77 91 65 fax: 943 77 91 63 |
| HILERRIA | tel: 943 76 27 81 fax: 943 77 91 63 |
| ENPRESA-BATZORDEA | tel: 943 77 91 73 fax: 943 77 91 63 |
| KULTURA | tel: 943 77 91 58 fax: 943 77 91 57 |
| KIROLAK | tel: 943 77 91 67 fax: 943 77 91 63 |
| EUSKARA | tel: 943 77 91 66 fax: 943 77 91 63 |
| INFORMATIKA | tel: 943 77 91 37 fax: 943 77 91 63 |
| KONTUHARTZAILAZIA | tel: 943 77 91 64 fax: 943 77 91 63 |
| OBRA ETA ZERBITZUAK- UDAL BILTEGIA | tel: 943 77 91 52 fax: 943 77 91 20 |
| ONDARE ARTISTIKOA | tel: 943 77 91 62 fax: 943 77 91 69 |
| UDALZAINGOA | tel: 943 77 91 06 fax: 943 77 91 63 |
| KIROLDEGIA | tel: 943 76 56 41 fax: 943 77 91 63 |
| IGERILEKUAK | tel: 943 76 20 51 fax: 943 77 91 63 |
| IDAZKARITZA | tel: 943 77 91 00 fax: 943 77 91 63 |
| HIRIGINTZA ETA INGURUGIROA | tel: 943 77 91 68 fax: 943 77 91 56 |

San Juan

Auzoaren historia eta inguruak ezagutzen

Bergaratik Elgetarako bidearen alde banatara dago kokatua, industri inguruan. San Juanek ez du kalerik. Biztanleak inguruko baserrietan sakabanatuta bizi dira, San Juan eta Irazabalgo Santi Kurutz ermiten babesean. Lantegi eta tailerren inguruko etxeak berriagoak dira.

Auzoaren historia, baselizen inguruan bizi izan den tradizioari loturik dago. Estivariz Munaberen testamentuaren arabera, XVI. mendean, 1548an ere ba omen zen Irazabalgo Santi Kurutz basiliza. Kontu-liburua Irazabalbeitia baserriaren ondoan gorde omen zen, baina 36ko gerratean desagertu zen.



Monumentuei dagokionez, San Juan eta Irazabalgo Santi Kurutz ermitak aipatu behar dira. San Juan ermitan,

aldare nagusian, San Juan Bautistaren XVIII. mendeko irudia dago. Santi Kurutz ermita, mendixka baten gainean dago, Elizalde baserriatik metro batzuetara. Epistola tokiaren ondoan Amabirjinen koadro bat dago, eta Ebanjelioaren aldean Jesusen Bihotzaren beste bat.

Beste eraikuntza aipagarri batzuk ere badira auzoan:

- Aristizabal baserriak jatorrizko erdi-puntako hiru arkudun ataria du.

- Olariaga armarridun etxea. Armarrria, atarira eta erdi-puntako arkua ditu.

- Elortza baserriak, armarr ederra dauka etxaurrean.

- Aritzabaleta baserriak, burdina landuz egindako haizeorrazt interesgarria dauka.

Auzoak, ibilbide interesgarriak eskaintzen ditu:

- Santi Kurutz ermitarainoko ibilbidean, kontraste handiko hiru ikuspegi daude: zelai berdeak, Bergarako herria eta San Juaneko industrialdea.

- Elgeta errekan gorantz eginda ere ibilbide polita egin daiteke, aintzinako hainbat errota ikusiz.

Baserriak eta Industrialdea

San Juan auzoko biztanleak baserrietan sakabanaturik bizi dira, baina asko dira elkarren ondoan dauden enpresak. San Juan auzoan zona industrialak garrantzi eta eremu handia dauka. Gaur egun, Bergarako zenbait enpresa garrantzitsu bertan kokatu dira.

Biztanleei dagokienez, lehenengo eskola zaharra elkarte bihurtu zen elkargune bat sortzeko asmoz. Auzoko ermitan, meza izaten da astero eta orain dela gutxi inguruak txukundu zituzten.

Juan Maria Aranak adierazi duenez, ura Urkulutik ekartzeko prozesua martxan da, eta nahiz eta asmoa etxe guztietan ura egotea izan, momentuz industrialdea bukatzeraino zatian ura izatea posible izango da denbora tarte bat barru.



Helbide berria
www.bergara.net

L.G./D.L.SS-1242/04

Editatzailea: Bergarako Udala
Egilea: Verbox, Consultores de comunicación
Tirada: Dohainiko 4.000 ale
Banaketa: Udaletxeko sailak, kioskoak eta ogia saltzen den puntuak